

KANALAK

Erosleekin komunikatzeko, aurrez aurreko komunikazioa erabiliko dugu. Hau da denetatik errazena eta erosoena, baina papelezko kartel txikiak ere izango ditugu eta bertan izango da gure telefono zenbakia, gure korreo elektronikoa eta zerbitzuaren informazioa. Hasiera batean buzoietan sartuko ditugu hauek, eta edozer gauza behar izanez gero beti egongo da telefono deia egiteko aukera. Azkeneko aukera, korreo elektronikoz idaztea izango da. Edozein pertsonak zailtasunak balitu deitzeko, korreo elektronikoko bidez idatzi dezake, zalantzarik izanez gero.

Hasiera batean bezeroak lortzeko edo aurrerago erabiltzaile gehiago lortzeko beste modu bat haien seme-alabekin, ilobekin, familekoekin komunikatzea izango da. Izan ere, gure zerbitzua herri txikietako pertsona helduagoei zuzenduta dago. Adin honetako pertsona batzuek laguntza behar dutela ez onartzeko ohitura dute. Horregatik izango da garrantzitsua haien ahaidekoekin harremanetan jartzea, hauek pertsona helduek onartzen ez dutena onartu dezaten, kasu batzuetan haien ordeaz erabakiak hartuz.

Gure zerbitzuak eskaintzen duen kanala zuzena da, hau da, gu izango gara bezeroekin harremanetan jarri eta zerbitzu eta produktuak aurrez aurre eskainiko ditugunak. Gure helburu nagusia, beste hainbat helbururen artean, gure bezeroei konfiantza eta segurtasuna eskaintzea izango da. Honek duen abantaila handienetako bat, erosleak lasai eta gustura sentitzea da, eta horrela enpresaz ez aldatzea eta beti gure zerbitzuak erabiltzea lortu genezake. Gainera, hartzaileak gure enpresako langileak ezagutuko dituzte, gutxi izango gara-eta, eta honek beste konfiantza puntu bat transmititzen du.

Salmentan, kanal propioa erabiliko dugunez, gu izango gara bezeroei produktu edo zerbitzuak eramango dizkiegunak. Hala, lehen aipatu dugun bezala, haiek guran sentituko duten gertutasuna areagotzea lortuko dugu, gure ideia aurrera eramateko konfiantza behar baitute guran.